

# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko apirilak 24 • 120. zka.



## Maiatzak 1 (1947-1997)

Juan Luis eta Beqo ■ Aurrekontuak onartu dira ■ Ojala-zelaiko krossa



# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldi kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:** CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE • Tfnoa: 79 20 18  
Gipuzkoako Policlínica • DONOSTIA • Tfnoa: 46 22 00



Basabe poligonoa B-7  
Tfnoa/Faxa: 79 28 41  
20.550 Aretxabaleta  
GIPUZKOA

- ATEAK
- LEIHOAK
- BALKOIETAKO ITXIERAK
- ARMARIOAK
- BAINUETAKO MANPARAK
- JOGUNE KULUNKARI SISTEMA
- BULEGOETAKO BEREIZTEA
- MERKATAL ETA ENPRESETAKO ITXIERAK
- EGURREZKO BUKATUAK
- R.P.T.zko ALUMINIOA:  
ATE ETA LEIHO ISOLATZAILEAK

## LORTU ITZAZU

FABRIKAKO PREZIOAK

BEREHALAKO ERANTZUNA

10 URTERAINOKO GARANTIA

ETA ENERGIA ETA MANTENTZEAREN  
AURREZKIAREKIN

Gainera...

ESPERIENTZIA  
ETA KALITATEA  
PREZIO ONEAN

**%10eko beharpena**

Maiatzaren 15erarte balio du

TXARTEL HAU  
AURKEZTERAKOAN





# Zer falta da Aretxabaletan?

## Itziar Mendieta

(Langilea)


Umeentzako parkeak, jolasteko lekuak. Leku berdeak ere falta dira, parkeak... Bestela nik uste dut Aretxabaletak badituela bestelako zerbitzuak.



## Patxi Zubizarreta

(Jubilatua)

Durana kalea trafikorako ixten denean, bizikletak eta motorrak sartzen dira debekatuta eduki arren. Hori norbaitek zaindu beharko luke.



## Dabid Merino

(Ikaslea)


Gazteentzako lokal bat. Kirol instalakuntza hobek. Kirol inguruan ekintza gehiago antolatu beharko lirateke.



## Josefi Fernández

(Etxekoandrea)

Gauza asko. Kanpoko igerilekuak... Kirol etxea berriztu beharko litzatekela uste dut, instalazio berriak egin, gimnasioa berriztu... Umeentzako parkeak ere falta dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Moda-modan dagoen runba batek hauxe dio: "Behin bakarrik bizitzen da" (sólo se vive una vez), baina irakurri ezker, behin baino gehiagotan bizi gaitzake, edo bizitza bat baino gehiago bizi ditzakegu.

Egia da bai, gaur egun ikusentzunezko iturriek eskaintzen digutenak liluratuta uzten gaituela askotan, baina beste batek jarritako soinuak eta irudiak ditugu ezinbesteko eta horrek gure perzepzioa baldintzatzen du.

Irakurriaz ez. Irakurtzen duguna osatu egin behar dugu, irudiak jarri, behar beste bider irakurri, zalantzatan ipini eta batzuetan inpugnatu.

Horregatik irakurtzeak, ez gaitu pasibo egiten, eragile baizik. Eta eragile izateak hain finkatuta dirudien errealitatea baldintzatzera eraman gaitzake.

## ekutitza



Irakurtzea, bizitzea da, sortzea.  
(Vazquez Montalbanen artikulua baten moldaketa)

## KURTZEBARRI ESKOLA

### Oharra

Aurreko aleko Almeneko ikasleek egindako fotonobelan, azken bigarren argazkia gaizki zegoen. Jarritako argazkiaren orde, neska batek besteari bandeja botatzen agertu behar zuen.

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Legedailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



## Turismo ekintzetarako zentrua martxan jarri nahi du Mankomunitateak

Azken urteotan hainbat turismo ekintza martxan jarri ditu Deba Garaiko Mankomunitateak: "Deba Garaia Euskal Herriaren bihotzean" katalogoa, pakete turistikoak...

Iaz bi pakete turistiko atera zituen. Pakete horietan, Deba Garaiko turismo eskaintza desberdinak agertzen dira. Alde batetik, astebukaerako eskaintza dago eta bestetik sei egunetako. Bi paketeek, Deba Garaian eta baita Gipuzkoan zehar ere hainbat bisitaldi aipatzen dituzte. Aretxabaletara bisita ere aipatzen da: Arratabe, gaur egungo udaletxea, Galartzako dorretxea, Otalora jauregia eta Urkuluko urtegia bisitatuko dira.

### Turismo ekintzetarako zentrua

Deba Garaiko Mankomunitateak Turismo ekintzetarako zentrua jarri nahi du martxan. Zentru honen helburuak, eskualdeko erakunde publiko eta pribatuek turismo arloan garatuko dituzten ekintzak proposatzea, koordinatzea, eta turismoa garatuko duten ekimenak bultzatzea izango dira besteak beste. Lan hori egiteko teknikari bat kontratatuko da.

Proiektu honen aurrekontua 6 milioitakoa da. Eusko Jaurlaritzak 3 milioiko dirulaguntza eman du eta gainontzekoa Deba Garaiko udalerritarara eskatzea planteatzen du Mankomunitateak.

## 53 neska-mutilek egingo dute jaunartzea

Maiatza jaunartzeen hilabetea da. Aurten 9 urteko 53 neska-mutilek egingo du jaunartzea gure herrian. Maiatzeko hiru domeketan izango dira: euskaraz, maiatzaren 4eta 11 eta Petekostes egunez, eta maiatzaren 18an erdaraz.

Umeez ilusioz itxaroten dute jaunartze eguna eta egun horretako ospakizunetarako gertatzen hasita daude: abestiak entsaiatu, pausoak ikasi...

Jaunartze aurretik Penitentzi sakramentua hartuko dute apirilaren 29an, arratsaldez umeez eta iluntzean familiartekoez.


## "Campaña madrina"

Urtarrilaren 27tik 31ra bitartean "Campaña madrina" izeneko ekintza aurrera eraman zuten katekesiko umeez.

Kanpaña hau, Gujerat Indiako herrialdeko umeei laguntzeko dirua batzean datza. Aretxabaletako kasuan 104.000 pezeta batu ziren eta Donostiako Jesuiten misioen bitartez bideratu zen bertara.

Katekesiko ume bakoitzak bere borondatea emanez lortu zen diru kopuru hau. Dirutza honek Gujerat herrialdeko 4 mutiko eta 4 neskentzako urte baterako laguntza suposatzen du: eskola, uniformeak, janaria...

Aurten lehenengo aldiz egin da honelako ekintza bat, baina izan duen arrakasta ikusita datorren urtean ere egingo da ziurrenik.



*Aretxabaletan Arratabe jauregia, Galartzako dorretxea, Otalora jauregia eta Urkuluko urtegia bisitatuko dira Mankomunitateak atera dituen pakete turistikoetan*

## ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55



## “Aretxabaletako hanka-bakarra”

Izenburu hori eman zion Jakoba Errekondok “Argia” aldizkarian apirilaren 20an argitaratutako artikuluari.

“Deba bailarako goialde horretan izan berria naiz eta betiko moduan zerbait erakusteko aitzakiarekin bertakoen-gandik ikasteko aukera ez dut alferrik galdu”.

Jakoba, Loramendi elkarteak antolatutako fruita eta barazkien inguruko hitzaldia ematen egon zen Aretxabaletan. Garbi dagoenez, erakusteko aitzakiarekin etorri zen baina ikasi barik ez zuen alde egin. Izan ere, harrituta gelditu zen

Aretxabaletan erabiltzen diren berba eta esae-rekin: hanka-bakarra (alfalfa), eskubete euli... kuriosoak iruditu zitzaizkion nonbait.

Egia esan, sarritan kanpokoak konturatzen dira lehenago herrian dugun aberastasun linguistikoaz. Ondo legoke honelako berbak eta esakerak gordeko bagenitu.



## Literatur astea Kurtzebarri eskolan

Apirilaren 23an “Liburuaren eguna”rekin batera hasi zuten Kurtzebarri eskolan literatur astea. Irakur zaletasuna bultzatzea eta literatur genero desberdinekiko sensibilizazioa sortzea helburu duen aste honek apirilaren 30ean izango du amaiera.

Asteari 6. irakur maratoiarekin emango zaio hasiera. Maratoi honetara Kurtzebarri eskolako guraso, ikasle eta irakurtzeko zaletasuna duen edonor dago gonbidatuta. Bertan liburutegiko liburuak eta ikasleek egindako lanak (ipuinak, autobiografiak...) egongo dira ikusgai. Asteazehar hainbat idazle hurbilduko dira eskolara. Horien artean: Mari Asun Landa, Yolanda Arrieta, Juan Cruz Igarabide... baita poeta batzuk ere: Harkaitz Kano eta Garikoitz Berasaluce.

## Administrari laguntzaile lanpostua

“Leintz Udal Euskaltegiak” Administrari laguntzaile bat egun erdirako kontratatu nahi du. Iraupena bertako administrari laguntzaile lanpostua betetzen duen langilearen amatasun lizentzia iraun artekoa izango da.

Hautagaiek bete beharko dituzten baldintzak: gutxienez 18 urte beteta izatea; LH1 titulua edo parekidea, ordenadorean ibiltzen jakitea, Word perfect; makinan idazten jakitea (250-300 pultsazio minutuko); hirugarren Hizkuntza Eskakizunak izatea...

Oinarriak ikusi nahi dituen edonorentzat eskura izango ditu Aretxabaletako edo Eskoriatzako udal-erretxeko bulego nagusian.

Eskariak Aretxabaletako edo Eskoriatzako Udal-erretxetako Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira, apirilaren 30a baino lehen, goizeko 11etatik 13etara.

## Onartu dira kirol teknikaria kontratatzeko oinarriak

Astelehenerako plenoan kirolerretxeko kirol teknikaria kontratatzeko oinarriak onartu ziren. Orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ondoren Estatukoan argitaratu beharko dira. Hori dela eta, oinarriak, G. A. O.n argitaratzen direnean jaso ahal izango dira Aretxabaletako udal-erretxean. Eskerak aurkezteko epea berriz, oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean hasiko da. Ekainaren bukaeran eskerak aurkezteko epea bukatuko da eta uztailean azterketak egingo dira.

Kirol teknikari lanposturako eskatzen diren baldintzak honako hauek dira: 4. hizkuntz eskakizuna; Hezkuntza Fisikoan Espezializatutako Magisteritza edo IVEFeko lehenengo hiru urteak eginda izatea.

Lanpostu hau lehiaketa-oposaketa bidez aurrera eramango da eta epe finkorako izango da. Hasiera baten langileak bost hilabeteko frogara epea pasatu beharko du.

*Okindegia - Gaztegia*

**Aretxabaleta**

Mitarte, 1-Ifnoa: 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zurre zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

**ESKORIATZA**

Tfno 714345

**ERRETEGIA**

Bazkari  
eta  
afariak

**MENDIOLA**

**Astelehenetan itxita**



# Apirilean zinea bukatuko da



Eguraldi onak eragin nabarmena izan du zinean

Apirilarekin batera zineak agur esango digu, uda pasatu artean behintzat. Datorren udazkenean ikusi egin beharko da zineko proiektioekin jarraituko den ala ez.

Azken hilabeteotan egin duen eguraldi ona dela eta ikuslegoa nabarmen jeitsi dela adierazi digu Cruz Maria Ansoaldek, Zاراia zinemaren kudeaketa daraman enpresaren arduradunak. Hori dela eta, apirilean zineko emanaldiekin bukatzea pentsatu da. "Iaz lehen urtea izanda, aurten jende gehiago etorriko zela pentsatzen nuen, baina ez da horrela izan". Garbi dago azken hilabeteotako eguraldi onak eragin handia izan duela, zine guztietan jeitsi da-eta kopurua".

## Pelikula takileroenak

Pelikula takileroenak, "Trainspotting", "En el nombre del hijo" eta "Sleepers" izan dira. Arrakasta txikia izan dutenak, berriz: "Misión imposible", "El amor perjudica seriamente la salud" eta "Tiempo de matar". Umeen sesioetan ere gorabehera handiak egon dira: pelikula gustokoenak "Lago Ness" eta "Aventuras en la corte del Rey Arturo" izan dira. Eta alderantziz, gutxien gustatu direnak: "Alaska", "Volando libre" eta "Magia en el agua".

Iazko urria eta azaroa nahiko hila-bete onak izan ziren Ansoalderen adierazpenetan. Abenduan jeitsiera nabarmendu bazen ere, urtarrila hilabete ona izan zen. Hortik aurrera, eguraldiak eragin handia izan du, zine guztietan igarri baita jeitsiera.

Eguakotx eta zapatu gaueko sesioak izan dira arrakastatsuenak, ez horrenbeste astelehenekoak.

Guzti hau esanda, datorren udazkenean ikusi egin beharko da zineko emanaldiekin jarraituko den ala ez, ziurrenik beste ahalegintxo bat egingo den arren. Jendeak duen interesa aztertu, eta honen arabera aurrera jarraitu ala ez erabaki beharko da.

## Juan Mari Irigoien eta Iñaki Zabaleta idazleak etorriko dira Udal Euskaltegira

Udal Euskaltegiko ikasleek Juan Mari Irigoien eta Iñaki Zabaleta euskal idazleak ezagutzeko aukera izango dute.

Euskal idazleen elkarteak antolatutako "Idazleak ikastetxeetan" programaren barruan bi idazle hauek euren liburuen berri emango diete ikasleei. Izan ere, euskaltegiko talde batek Juan Mari Irigoien "Babilonia" liburua irakurri eta aztertu du oraintxe eta beste talde batek, "110.eko striteko geltokia" Iñaki Zabaletarena.

Juan Mari Irigoien apirilaren 29an izango dugu Aretxabaletan eta maiatzaren 6an Iñaki Zabaleta.

Dударик gabe, euren jakinahiak eta kezkek galdeztzeko eta idazle hauekin solasaldi polita pasatzeko aukera ederra izango da.



### TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA

### ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

### Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA



**EGUZKI GRAF**  
inprimategia



Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941  
ARETXABALETA



**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA



## Nagusien dantzari eguna antolatu du Loramendi dantza taldeak



*Goizeko 12etan eta arratsaldeko 5etan dantza ekitaldi nagusi bi egingo dira herriko plazan*

□ Dantzari egunak, Euskal Herri osoko dantzak batzen ditu. Deba Garaiko dantza taldeetako kideek dantzatuko dituzte.

Datorren domekan, apirilak 27, eta Loramendi Dantza Taldeak antolaturik, Dantzari Eguna ospatuko da Aretxabaletan. Bertan Deba Garaiko nagusien taldeek hartuko dute parte. Egun honetan Aretxabaletako Loramendi dantza taldeak, Eskoriatzako Gorosarrick, Arrasateko Lore Gazteak eta Arroztaitzek, Oñatiko Oñatzek, Bergarako Xamatzek, Antzuolako Oinarinek eta Soraluzeke dantza taldeetako kideek dantzatuko dute.

Dantzari Egunaren ekitaldi honetarako prestatu den egitarauak, Euskal Herri osoko dantzak batzen ditu, baita dantza Suletanoak ere. Dantza hauek daukaten ikusgarritasuna eta zailtasunagatik oso garrantzitsuak dira. Deba Garaiko dantza taldeetako kideek dantzatuko dituzte.

Egun honetako egitaraua honako hau da:

Goizeko 10etan egunari hasiera emateko Loramendi dantza taldeko txistulariekin diana egingo da. 11etan talde parte-hartzaileek herriko kaleetan zehar dan-

tzatuko dute.

Ekintza aipagarrienak goizean eta arratsaldean plazan egingo diren alardeak dira. Lehena goizeko 12etan egingo da eta arratsaldeko 5etan bigarrena. Goizeko saioan honako dantzak egingo dira: Agurra, Bizkaiako makil dantza, Luzaideko makil dantza, eta suletinoak. Honez gain dantza talde hauek hartuko dute parte: Arrasateko Arroztaitz dantza taldea, Antzuolako Oinarin dantza taldea eta Oñatiko Oñatz dantza taldea.

Arratsaldeko saioan berriz, Lizartzako brokel dantza eta makil dantza, Itei dantza, Txerri dantza, Azkaindarra, fandangoa eta arin-arina dantzatuko dira. Taldeei dagokienez, Eskoriatzako Gorosarrick dantza taldea, Soraluzeke dantza taldea, Bergarako Xamatz dantza taldea eta Arrasateko Lore Gazte dantza taldea izango dira.

Saioa bukatutakoan erromeria egongo da Txinparta taldearekin herriko plazan arratsaldeko 7,30etan hasita .

## 115 odol-emale izan dira herrian

Arabako odol Bankukoak Aretxabaletako Osasun zentruan izan ziren apirilaren 1, 7 eta 14an. Egun horietan zehar guztira 115 lagun izan dira odola eman dutenak.

Egun bakoitzeko azterketa eginez gero, apirilaren leian oso odol emale gutxi egon ziren, 6 guztira. Apirilaren 7an berriz, 53 odol-emale, horietatik 5 berriak eta aurkeztu zirenak 57. Azkenengo eguneko datuak kontutan hartzen badiugu berriz, 59 aurkeztu ziren guztira, horietatik 56k eman zuten odola, 6 berriak izanik.

Iazko urteaz konparatuz, kopurua antzera mantentzen dela esan beharra dago, iazko sasoi honetako odol-emale kopurua 120koa izan zen.

Odol emalea 18 urtetik 66 urtera bitarteko edozein pertsona izan daiteke. Medikuek azterketa bat egiten du odola eman aurretik eta normalean ez da arazorik egoten ondoren emateko.

Guzti honekin gogoan izan, pertsona batek beste baten bizitza salba dezakeela.

**OSKAR  
GARAIEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

**Martini**



INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK

**RKL**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33



# Udal aurrekontuak onartu dira

□ 737 milioitakoa da aurtengo udal aurrekontua. Iazkoa 755 milioitakoa izan zen

Apirilaren 21ean egin zen pleno berezian onartu ziren aurtengo udal aurrekontuak. Udal korporazioko zinegotzi guztiak izan ziren plenoan, 13 guztira. HB, EAJ, eta EAren aldeko botuekin onartu zen aurrekontua, PSE alderdia abstenitu egin zen. PSEk bere desadostasuna erakutsi zuen aurrekontuko hainbat atalen inguruan. Alde batetik, Arau Subsidiarioak ez direla bultzatu eta lurra erosteko bideratutako 10 milioitako aurrekontua gutxi dela erizten zuen. Bestetik, kirol teknikariari Udalak erabakitako laugarren hizkuntz eskakizuna beharrean hirugarren perfila nahikoa dela esaten zuen. Udalak hasiera baten erabakita-koarekin jarraitzea erabaki zuen.

## 737 milioiko aurrekontua

Aurtengo Udalaren aurrekontua

737 milioitakoa da eta iaz moduan areaka banatu da. Horrela, obretan (153 milioi), hirigintzan (150 milioi) eta ogasunean (112 milioi) gastatuko litzateke aurtengo aurrekontuaren zati haundi bat. Kontutan izan behar da Urats-Gain egoitzaren aurrekontua aparte doala eta hau 58.497.835 milioitakoa da. Azken hau kontutan izanik, aurrekontu orokorra 766.335.874 milioitakoa da.

Esan beharra dago aurten lehenengo aldiz, partida guztiak euskaraz idatzi direla. Euskararen alde egiten den pausu garrantzitsua da hori baina oraindik ere asko gelditzen da egiteko.

## Partida berriak

Aurtengo aurrekontuan sartu diren partida berriak honako hauek dira besteak beste: Hirigintzan, Araba Ibilbidea kaleko 24-29 zenbaki

bitarteko saneamendu plana, 54 milioi; Loramendi kaleko errotonda, 19 milioi; obretan, eskilara baten erosketa, 3 milioi. Gainontzeko arloetako partida berriak: lur sailen erosketa, 10 milioi; Iturrigorri frontoiaren itxiera, 10 milioi; jaietarako tablatua, 4 milioi; musika eskolako estalkia, 2,5 milioi; artxibo fotografikorako materiala, 400.000 pezeta; liburutegirako ordenagailua, 250.000 pezeta.

## Balorazioa

Aurrekontuak onartu ostean HBk bere balorazioa egin zuen komunikabideen aurrean. Aurrekontuen inguruan, balorazio baikorra azaldu zuen: "Aurrekontu justuak izan direla uste dugu. Prozesu garbia izan da eta alderdiek eskubidea izan dute euren iritzia eman eta parte hartzeko. Hala ere, kontutan izan behar da, diru sarrerak murriztuak direla eta hau arazo politikoa da, azken finean beste instituzio batzuren menpe gaudelako".

Baina dirua murriztua izan arren, behar garrantzitsuetara bideratu zela aipatu zuten: 10 milioi epe motzean etxebizitza sozialak egingo diren lurren erosketarako, 7 milioi enplegurako, 54 milioi Araba Ibilbideko saneamendu planerako eta bestelako herri ekimenetarako: herri telebista, Hies ekimena, Ruandako proiektua, fotografiako artxiboa...

HBren adierazpenetan akordio honetara iristeko adostasun maila handia lortu da eta prozesu zabala izan da.



Zinegotzi guztiak egon ziren asteleheneko plenoan

**IRIARTE**

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96

BERALAN



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

Artano  
Taberna

Herriko Plaza  
ARETXABALETA

**IZOTZ  
Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta



**UDALAK BERE AURREKONTUETAN ONARTU DITUEN GASTUAK**

	<b>1997</b>	<b>1996</b>
Ongizate saila	68.697.469	67.537.728
Ingurugiroa	4.102.780	5.784.830
Garapen ekonomikoa	16.662.934	14.558.946
Kirolak	44.440.616	94.937.197
Kultura	49.341.588	44.456.038
Kontsumoa	1.100.000	600.000
Hezkuntza	34.736.203	33.656.560
Normalizazio linguistikoa	24.568.647	20.215.281
Hirigintza	150.747.461	123.965.534
Obrak	153.036.021	159.744.869
Nekazal guneak	10.065.081	18.674.228
Ogasuna	112.673.080	117.926.527
Idazkaritza pertsonala	22.255.053	24.601.526
Presidentzia	28.155.032	13.952.084
Udaltzaingoa	16.536.809	15.114.938
<b>GUZTIRA</b>	<b>737.118.774</b>	<b>755.726.286</b>

**UDALAK IZANGO DITUEN DIRUSARRERAK**

	<b>1997</b>	<b>1996</b>
- Zuzeneko zergak	107.764.788	97.618.033
- Zeharkako zergak	15.000.000	30.000.000
- Tasak eta bestelako sarrerak	145.707.242	219.355.667
- Transferentzia arruntak	327.964.486	307.709.137
- Ondare-sarrerak	23.000.120	2.501.120
- Inbertsio errealen besterenganaketa	63.001.000	48.289.777
- Kapital transferentziak	9.357.870	50.252.552
- Finantza pasiboak	45.323.268	
<b>GUZTIRA</b>	<b>737.118.774</b>	<b>755.726.286</b>

**G U R E A***taberna  
jatetxea*Durana kalea  
Tfnoa: 79 20 64**AMETS  
TABERNA**Iparragirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
**Aretxabaleta****SAGASTA****ELEKTRIZITATEA**Elektragailuak  
Elektra-instalakuntzakOtalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10**IBARRA  
ESTANKOIA**Tabakoa eta  
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



## Maiatzak 1 1947-1997

# Izan zirelako gara eta garelako izango dira

**E**lkartasuna hitza, senti-  
mendua bezain ederra da.  
Gaur egun, takien da puntuen edo-  
non entzun eta hartzen dugu hitza,  
sentimendua alde batera utziz.

Ez zuten horrela pentsatzen,  
Atxabaltan, orain dela 50 urte,  
1947an hain zuzen ere, (hona  
hemen beste efemeride bat), beste  
harek "El Eterno-k" lortutako  
garaipenaren ondorioz etorri zen  
"pakea" astindu eta kilikan jarri  
zuten atxabaltar hauek. Orduan,  
Maiatzaren Lehena zela eta Bilboko  
lantegietako grebaratuen langi-  
leekin elkartasuna biziz, hemen ere  
ekintza burutzea pentsatu zen.

Historian atzerago joko dugu,  
eta horretarako orduko ekintzaren  
protagonista batekin (bizirik irauten  
duen bakarra) hitzegin dugu, Luzio  
Oteizarekin.

Luziok, Atxabalta eta Euskal  
Herriko historia zuzen zuzenean  
bizi izan du, sozial eta politika  
hesparruetatik batez ere. 1930eko,  
Maiatzaren Lehena ospatzeko  
UGTkoek txaranga bat ekarri zuten,  
eta patua ote?, bertan behera gelditu

Zertarako zara  
aurrenekoa,  
ez bada laguntzeko  
azkenekoa?

Zertarako duzu  
zeure gehiagokoa,  
besteen gutxiagoa  
gehitzeko ez baduzu?



1947ko Andra Mari egunean, meza ondoren ateratako argazkian atxilotuak izan zirenak agertzen zaizkigu: Ezkerretik eskumara: Bixente Arze, Bittor Ugalde, Manuel Beitia, Felix Ugalde, Ramon Antxia, Nikolas Peña, Luzio Oteiza eta Seberiano Agiriano.

**“Maiatzaren  
lehena zela  
eta, Bilboko  
langileekin  
elkartasuna  
biziz, hemen  
ere ekintza  
burutzea  
pentsatu zen”**

zen jaia; basoak sua hartu eta  
lanean ari zen Simon, Errota Zaha-  
rreko mutil-zaharraren bila joan  
behar izan zuten. Eliza osteko  
Andra Mari zubitik igarotzerakoan,  
a nolako zauri eta minak izango  
zitu! honela esaten zuen  
Simonek: Bota, bota errekar!

Mutikote zelarik, 18 urterekin,  
1934an, Urriko Iraultzan izeneko  
matxinadan norbaitek kaxaren  
batzuk eramaten ikusi eta... barrura!  
Kartzelan, Gerra kontseilua egin  
zioten, bera ezkertia izanik Erre-  
publikaren aurka joateagatik (?).  
Gogoratu, Iraultzaren ondorioz, eta  
enpresariak eskatuta, Goardia  
Zibilen koartela egin zela Atxa-  
baltan, Eskoriatzan zegoen desta-  
kamentua hona ekarri.


Handik bi urtetara, 1936an  
Gerra Zibila, eta Luziok Dragoien  
Bataloian parte hartu zuen. Oso  
bataila gogorak jasan behar izan  
zituzten. Zauritu egin zuten eta  
Bizkaitik Asturias-era ebakutua  
izan zen. 1938an berriz preso hartu  
zuten, oraingoan nazioanalak  
(faxistak) eta berriz Gerra Kontsei-



lua pasatu behar izan zuen; oraingo honetan Errepublika defendatzeagatik (bizitzaren ironia!!). Kartzelan eta Langileen Bataloietan bost urte egin ondoren (Para redimir penas), berriz Atxabaltara.

Garai hartan herriak jasaten zuen egoera ez zen txantxetako: lehenik gerra galdu, gero gosea, rasionamendua, egurra, eta guztien gaintetik, askatasun eza. Aipatzekoak: asteen sei egunez egiten zen lan, zapatua barne. Egunean 9 ordu lan egiten ziren ko-bratzeko eta bat Estatuarentzat. Langile baten soldata 16,80 pezeta zen eguneko. 800 bat langile zeuden Atxabaltan, 3.000 biztanle inguruko herrian.

Hasierako hariari lotuta 1947. urtera gatoz. Nahiz eta Bilbon hasi lehen protestak, azkar mugitu ziren beste toki batzutan ere, hala nola: Errenderian, Eibarren, Atxabaltan... "Resistencia Vasca" izeneko mungimenduak egin zuten grebarako deia, eta kontatu digunez, herrikoi, orokor eta baketsua izan zen. Norbaitek



Luzio Oteiza Maiazaren Ieko ekintza hartan parte hartu zuen eta gaur egun bizi den bakarra da

salatu, eta ekintzaren "errudunak" banan banan deitu zituen udaltzainak. Udaletxean bertan (Durana 11), Pleno Aretoan giltzaperatu zituzten. Hurrengo goizean, hori bai txukun-txukun bizarra kenduta gero (horietako bat, Zubillaga "miner" barberoa baizen, gero

hanka egitea lortu zuena) Donostiara eraman zituzten esku lotu eta guzti. Estazioan herriko jende gehiena bildu zen euren elkartasuna adieraziz. Atzekaldean, beste norbaitek: "Horreik.. lepotik, lepotik" esaten zuen bitartean.

Bidean zihoazela, inongo koarteleatik pasatu gabe, kartzelara zuzen joateko esperantzaz lasaitu ziren. Donostian, Ondarretako kartzelara eraman zituzten (beranduago, Luzio berari, tokatu zaio Martutene ere estreinatzea). 48 egun eginez bertan.

Gogoeta txarrak izan arren, zorioneko elkartasun sentimendua, ez hitza bakarrik, zer den ba dakite. Eurek egin zutenagatik, eta eurekiko, Atxabaltako herriak eginkoagatik; giltzapean zeudenean emandako laguntza eta askatu ondoren egindako harreragatik.

Joandako eta gelditzen denaren omenez. Ikasiko ote dugu noizpait? Noizpait ikasiko?

**Kepa Antxia Leturia**  
**Aitor Antxia Leturia**

**"Estazioan herriko jende gehiena bildu zen euren elkartasuna adieraziz"**



1947. urtean Maiazaren lehena zela eta Bilboko lantegietako grebatuekin elkartasuna erakutsi zuten argazkikoek



# Juan Luis eta Bego Lekunberri maketa berriaren zain

**Egun batzuk barru maketa berria esku-artearen izango dute Juan Luis eta Bego Lekunberri aita-ala-bek. Ez da lehena izango ordea, beste batzuk ere atera dituzte eta. Merkatura zabaltzeko eta maketa komertzializatzeko asmorik ez duten arren, euren musika eta kantak ezagutzera eman nahi dituzte.**

Aita-alabak ditugu oraingo honetan maketa baten sortzaile eta hau ez da kasualitate hutsez ateratakoa izan. Musikari batek eginiko kantuak eta honen alabaren ahotsa tar-tekatzen dira bertan. Musikaria bai, Juan Luis zornotzarra da izatez, baina oso gaztea zela Valentziara joan zen bizitzera. Bertan musikako ikasketak burutu zituen eta Euskal Herrira etorri zen ondoren.

Irakasle lanean hasi zen hemen eta honek musika mundutik pixkat al-dendu arren, beti mantendu izan ditu arlo honekin harremanak.

Orain sei urte, bere alabak abesteko zituen gaitasunez jabeturik, alabarekin batera abestiak sortu eta hauek kantatzeari ekin zioten.

Bere lehenengo emanaldiak, Atzeratuen aldeko jaialdian eta Arrasa-



**“Nik sortutako kantuak ateratzen saiatu naiz orain arteko maketetan. Azkenengo honetan, nireak ez diren beste batzuk ere sartu ditut”**

teko ospitale psikiatrikoan eman zituztela gogoratzen du Juan Luisek. Honez gain, Euskal Herriko kantu txapelketara ere aurkeztu ziren orain bost urte eta bertan “Elantxobe” abestiarekin solista onenaren eta kreatibitatearen saria jaso zuten.

Geroztik hainbat emanaldi egin dute han eta hemen. Ludi Berri izeneko beste talde batean ere jotzen dute, ezteietan, bazkarietan... Hirukotea osatzen dute kasu honetan

Pepe Arregirekin batera. Baina gaur egun emanaldi baterako deitzea gero eta zailagoa dela azpimarratzen du Juan Luisek. “Ez ditugu emanaldi asko eskaini, deitu ez digute-lako, horregatik maketa honen bitartez gure burua ezagutaraztera eman nahi dugu”. Ez dute maketa komertzializatzeko asmorik ordea. “Guretzat eta inguruko lagunentzat grabatu dugu, baita taberna eta irratiara banatzeko ere. Gustatzen zaigulako

eta afizioagatik egiten dugu”- dio Begok.

“Grabaketa aldetik” - azpimarratzen dute- “ez da kalitate honeko grabaketa. Etxeko produktoa da eta hori nabaritu egiten da. Ez daukagu behar bezalako ekipo teknikorik eta lehenengoan grabatutakoarekin aurrera egiten dugu”.

Hala ere, meritu handia daukate. Kantak Juan Luisek berak sortutakoak dira eta baita kantuen letrak ere.

“Nik sortutako kantak ateratzen saiatu naiz orain arteko maketetan. Azkenengo honetan berriz, nireak ez diren beste abesti batzuk ere sartu ditugu, ingelesak, herrikoiak...”

Maitasuna, abertzale-tasuna, umeen abestiak... jorratzen dira maketa berriari. “Alde batean kanta ezagunak ipini ditut, baina gure bertsioan landuak. Zortzi bat kanta egongo dira alde bakoitzean”.


Musika mota desberdinak jotzen dituen instrumentua erabili dute azken maketa honetan, sintetizadorea hain zuzen ere. Honen musikari Begoren ahots finak laguntzen dio. Begok bere denbora librean ikasten eta entsaiatzen ditu kantuak.

Biek itxaropentsu begiratzen diote maketa berriari. Ea ba, azken honek emanaldi gehiagotarako bidea zabaltzen dien. Hala izatea espero dugu behintzat.



## 2. atala

Nahia ikastetxe berrira heldu da eta taldeko batek, Itsasok, ez dio harrera onik egin. Jadanik, izan dituzte lehenengo tira-birak.



Asko pentsatu ondoren Haritzek eta Nahiak egingo dute Romeo eta Julietaren paperak.



Neska berri honek niri mutil laguna kendu behar didala uste badu, ondo dago...

Ai, Romeo, Romeo...



Julieta maitea...



Egun hauetan  
gutziz asperturik  
nabil.

Baita ni ere. Ez  
da ezer berririk  
gertatzen...



Beno, dagoeneko ikasi  
duzue ekuazioak egiten...



Hartu, Nahia.







"Atsedenaaldian emango dizkidazu pipa batzuk, ez da?"



Haritz, hartu pipak.



Bitartean gela barruan...



# Otala-zelai krossa ospatuko da maiatzeko lehenengo domekan



Proba nagusia 11etan hasiko da Urkuluko urtegian

Urtero moduan aurten ere Otala-zelaiko kross herrikoia ospatuko da maiatzaren 4an. Krossa antolatzeari ekin zitzaionetik 19 urte pasatu dira eta esan beharra dago partaidetza haundia biltzen dela lasterketa honetan. Almen K. E.a eta UDA dira edizio honetako antolatzaileak.

Lasterketan edozeinek parte har

dezake. Sailkapena honela egingo da: gizakumeetan, junior, senior eta beteranoak; emakumeetan absolutoa.

Gizakumeetan seniorrek buelta bi eman beharko dizkiote urtegiari eta gainontzekoek buelta bana.

Goizeko 11etan emango zaio hasiera lasterketari eta 12,30ak

□ Proba nagusia hasi aurretik gaztetxoek probak egingo dira goizeko 10etan hasita

inguruan amaituko da. Korrikalariak bularrean eta agerian eraman beharko dute zenbakia. Dorsalen banaketa 9,30etatik 10,30etara izango da.

Sariak maila bakoitzerako desberdinak izango dira. Guztira 160.000 pezeta banatuko dira saritan eta garaikurra ere emango diote kategori bakoitzeko onenari. Parte hartzaile guztientzat kamiseta bana egongo da eta honez gain hainbat opari zozketatuko da.

Jose Apalanzak 40'59''tan duen errekorra gainditzen duenarentzat 25.000 pezetako saria egongo da.

Izen ematea probaren egun berean irteera lekuan egin behar da (500 pta).

Proba hasi aurretik benjamin, alebin eta infantil probak burutuko dira goizeko 10etatik aurrera. Lehenengoei domina emango zaie.

## ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51




FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

## MEMESA S.L.

*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



**Aholkularitza**

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**


Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

## JOSU

*HARATEGIA*

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08



## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



## Arlutz saskibaloia txapelketa



Sei taldek izena eman dute Arlutz saskibaloia txapelketan

Aurreko urteetan konparatuz oso talde gutxi apuntatu da aurtent Arlutz saskibaloia txapelketan. Iaz hamar taldek eman zuten izena eta aurtent berriz, seik.

Horren talde gutxi izanik, talde guztiek neurtuko dituzte indarrak elkarren aurka, gero final aurrekoak eta finalak jokatu ahal izateko.

Aurreko partiduetako emai-

tzak hauexek izan genituen: DDK 53-Quo Vadis 60; Basotxo Split 44-Kemen 47. Difunto Arevalo eta Hanka zikina taldeek ez zuten partidurik jokatu eguraldi txarra zela eta.

Datorren ihardunaldiak zapatu arratsaldean jokatu dira. Hauek izango ditugu taldeak: DDK-Difunto Arevalo; Basotxo Split-Quo Vadis; Kemen-Hanka zikinak.

## Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketa jokatzentz hasi da

Pasatu den astebukaeran, Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketari, eman zitzaion hasiera. Guztira 27 talde daude Gipuzkoa mailan izen emanda.

Atxabaltarrei Soroluzeko pelotarien aurka jokatzentz tokatu zitzaion. Lehen ihardunaldi honetan Aretxabaletako taldeek bi partidurik galdu eta bakarra irabazi zuten Soroluzentz jokatu zirent partiduetan. Eraña-Alzola bikoteak 18-11 galdu zuten

Soroluzeko Eguren-Arrieta bikotearen aurka. Jubenilek ere galdu egin zuten partidua: Heriz Laskurain 22-Bartolome-Lasagabaster 14. Errasti anaiak osterant indartsu ibili zirent eta egurra eman zirent Soroluzeko Muguza-Calles bikoteari. Azken hauek tantu bakarra egin zuten.

Datorren zapatuan bueltako partidurik jokatu dira Iturrigorri frontoian gaueko 9etan hasita.

## Broad Peak Iñurrategi anaien begietan

Pakistaneko Karakorumen kokatzen da 8.047 metrotako altuerako Broad Peak mendia. Aurtent urteant Iñurrategi anaien helburuetan mendia hau igotzeak hartu du lekua. 8.000 metroko mendien arteant altuera txikiena dutenetakoa bada ere, munduko 14 mendia gailurrenetarikoent arteant dago. Ez da gutxi.

Baina mendia honi aurreko espedizio bateant bota zirent begia Iñurrategi anaiak, 1994. urteant K2ra joan zirent hain zuzen ere. "Orduant deitu zigun atentzioa mendia honen hegoekialdeko aristak, -dio Albertok- eta argazki mordotxo bat ere atera genizkion". Orduant pasatu dira hiru urte eta momentu honetant espedizio berri honen azken lanak egiten ari dira Felis eta Alberto. Espedizioant biek bakarrik parte hartuko dute oraingo honetant. Maiatzaren 10eant ziurrenik abiatuko dira Pakistan aldera. "Gauzak ondo joaten badira hilabete inguruko ekipamendu lana egingo dugu eta ekaina bukaeran edo uztaila hasieran saiatuko gara tontorra egiten".

Jende askok igo ei du mendia hau, hegoaldeant dago bide normala baina Iñurrategi anaiak bide berri bat zabaltzeko asmoa dute hegoekialdeko ertzetik. "Arista polita da"- azpimarratzen du Albertok. "Ahalik eta modu arineneant egiten ahaleginduko gara".

Zazpigarren 8.000koa dute honako hau, ez da ez erronka makala bi mutil gazte hauentzat.

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

### Izozkitekigozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA



### MAPFRE

Aseguroak

Erreka barren, 3  
Tfnoa: 77 11 76





## “Idazle izatea gustatuko litzaidake”

Euskaltegiko ikaslea dugu Maribel Oliva. Orain dela hiru urte, gurasoei zuzendutako programaren barruan euskara ikasten hasi zen.

Salamancan jaioa bada ere, bi hilabete zituela etorri zen Arrasatera. Orain dela 15 urte, berriz, Aretxabaletara.

• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

*Euskal Herrian bizirik derrigorra ikusten nuen euskaraz jakitea. Euskaraz ikasi barik, beste nonbaiten nagoela ematen du. Hemen bizi eta euskaraz ez jakitea ez da logikoa.*

• Zenbagarren mailan zaude?

*Laugarren mailan.*

• Zaila da euskaraz ikastea?

*Bai, ez da erraza. Estrukturak batez ere oso zailak dira, beti aldatu egiten dira eta.*

• Zer da gehien gustatzen zai-zuna?

*Kontaketa, gutunak idaztea, nominalizazioak...*

• Eta euskara praktikatzen duzu?

*Bai, nire seme-alabekin eta baita dendan ere.*

• Zer esango zenieke euskaraz ikasi nahi dutenei?

*Animatzeko eta etortzeko. Oso ondo pasatzen da gainera. Guraso asko daude eguerdian ezer egin barik egoten direnak eta horientzeko aukera ona da. Bildur barik etor daitezela.*

• Dendaria ez bazina zer izatea gustatuko litzazuke?

*Idazlea.*

• Idazten duzu?

*Bai, nobela antzeko bat idazten ari naiz. Gordeta daukat.*

• Sinistuna zara?

*Bai.*

• Nor miresten duzu?

*Idazleak. Onak diren pertsonak.*

• Zein idazle duzu gogoko?

*Gala, Gabriel Garcia Marquez, Zoe...*

• Zein liburu gomendatuko zeniguke?

*“Cien años de soledad” Gabriel Garcia Marquezena.*

• Ezkondua?

*Bai.*

• Seme-alabak badute zure antzik?

*Bai, apur bat bai.*

• Dutzatu ala bainatu?

*Dutzatu.*

• Abeslari gustoko bat?

*Momentu honetan Rosana.*

• Plater gustokoa?

*Arrosa.*

• Egin dizuten oparirik politena?

*Marrazki bat.*

• Gomendio bat?

*Gaurkoan bizi biharkoan pentsatu barik.*

• Desio bat?

*Gerrarik ez egotea.*

• Akats bat?

*Asko hitzegitea.*

• Eta zure ezagarrri on bat?

*Barkatzen jakitea.*



## Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi  
euskera elkartea





1979. urteko maiatzaren 1ean Otala-zelaiko lehen krossa ospatu zeneko argazkia. 231 korrikalarik ekin zioten lasterketari eta 186k bukatu zuten. Bero haundia egiten zuen eta zenbait korrikalarik mareoak euki zituzten.

**F**irurogeita hamarrekota hamarkadan modan jarri ziren herri krossak eta 1979. urtean antolatu zen lehenengo aldiz Otala-zelaiko krossa. 1979ko maiatzaren 1ean hain zuzen ere. Hasierako lasterketa haietako kontu batzuekin gatzon ondoren.

Otala zelaitik urten, urtegiari bi buelta emun eta berriro Otala-zelaira igo behar izan zuten lehenengo lasterketa hartako parte hartzaileek. Bero haundia egin zuen egun hartan, hori dela eta, zenbait korrikalarik mareoak euki zituzten. 231 korrikalarik ekin zioten lasterketari, 186k besterik ez zuten bukatu. Irabazlea Jose Mari Gomez izan zen, 21 urteko Plaentziako gormutu bat.

Bigarren urtean 172 korrikalarik hartu zuten parte eta horietatik 140k baino ez zuten lasterketa bukatzea lortu. Urte honetan ere, Jose Mari Gomez izan zen irabazlea. Ramon Jausoro 5. gelditu zen. Herriko lehenengo beteranoa: Alberto Uribe-etxebarria. Herriko lehenengo emakumezkoa: M. Luisa Jausoro.

Hirugarren urtean 108k urten zuten eta 92k bukatu zuten lasterketa. Hirugarren aldiz, Jose M. Gomez izan genuen irabazlea. Bigarrena Ramon Jausoro.

Laugarren urtean 89 partehartzailetatik 87k lortu zuten lasterketa bukatzea. Bosgarren urtean, 67k urten zuten eta 63 heldu ziren helmugara. Urte horretan lortu zuten Jausorok lehen garaipena eta hurrengo urtean be berak irabazi zuen.

Otala-zelaiko krossaren errekorra (Urkuluko urtegiari buelta bi ematean datzana), Jose Apalanzak lortu zuen 1994an: 40 minutu eta 59 segundu.

Argazkia: Jokin Antxia

Informazioa: UDAko 50. urteurrenko liburua



# Bi hilabete eta gero hau



Horixe bera pentsatuko zuten askok joan den astebukaeran. Bi hilabete luzez ez dugu euri apurrik ere ikusi eta iritsi denean, bi tantaka astebukaera izorratzeko eta astelehenean berriro eguzkia zeru gainean. Ez dugu ez martxa honetan belar asko ikusiko aurten. UDAkoek behintzat ardura hori ez dute futbol zelaiko belar artifizialarekin.

Futbolaz berba egin dudanez jakingo duzue **Andoni Zubizarretak** "Euskal kirolaren saria 96" jaso zuela hilaren 17an Ajuria Enean. Sari hau Euskal baloreak errepresentatzeagatik eman zioten. Zorionak! Sari hori kirol sari bat baino gehiago da.

Kirolez aldatuz **Juan Antonio Varillak** Ake Squash taldekoak, Musakolako kiroldegian ospatu zen squash txapelketa irabazi zuen. Deba Garaiko 18 jokalarik hartu zuten parte eta maila oso ona izan zen.

Arrasaten jarraituz **Eduardo Abasolo** atxalbaltarrak Arrasate Irratiko "Bi zoro eta zu" irrati saioa zuzentzen du Mikel Lizarralderekin batera. Eduardo, Irudi eta soinu ikasketak burutzen ari da Andoainen. Saioa zapatu goizetan 10etatik 11etara ematen dute. Majo etorriko da horrelako jendea herriko telebista txukun bat egiteko.

Telebistan Don Luis apaizaren sotana utzita eta pailasoaren erropak jantzita **Dabid Errastik**, Txoronpio, Pantxi eta Pantxo bere taldekideekin batera lehen diska kaleratu dute Elkar argitaletxearen eskutik. Taldeko beste partaideak, Teresa Lopez de Munain eta Josean Bengoetxea dira. Ezingo dira kexatu Euskal Herriko neska-mutilak pailaso faltagatik.

Kultura kontuekin jarraituz, esan behar da Maulen Eperra ikastola eraikitzen ari direla eta bertan laguntzera Aste Santuan bi atxabaltar joan ziren **Pello Gomez** eta **Saioa Arando**. Hauek bai meritoa.

Azkenik joan den astebukaeran Zirt-zart ileapaindegiak antolatuta **desfilea** egin zen Magna diskotekan. Atxabaltar dexentek hartu zuen parte. Showa ikusgarria izan zen eta ezer ez faltatzeko ETBko "Jaiak 97" programakoak ere bertan izan ziren grabatzen. Dagoeneko modelo horietakoren bat Pariseko bidean egongo da.

Ni ere ileapaindegira noa premia ederra dut eta.

A R E T X A Z O K A

<u>LANA</u>	<u>ETXEBIZITZA</u>	<u>DENETARIK</u>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Umeak zaintzeko emakume bat behar da. Tfnoa: 79 00 14 (deitu 7etatik aurrera).</li> <li>• Andereino diplomatuak klase partikularrak emango lituzke (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.</li> <li>• Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauz. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).</li> <li>• Garajea salgai dago Lausitan. Tfnoa: 79 80 72. Deitu ordu 2etatik 6etara.</li> <li>• Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.</li> <li>• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Remolkea salgai. JB-150 modelo. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.</li> <li>• Bizikleta bat (paseokoa) emateko daukat. Egoera onean. Tfnoa: 77 01 74.</li> <li>• Lur hiztegi entziklopedikoa salgai dago, estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu 1etara, arratsaldez 4etatik 9etara).</li> </ul>

Orrialde honetako iragarkiak dohanik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



**JERRY MAGUIRE**

EEBB 1996

ZUZENDARIA: Cameron  
CroveAKTOREAK: Tom Cruise  
(Jerry Maguire), Cuba  
Gooding (Dorothy Boyd),  
Renee Zellweger (Avery  
Bishop), Kelly Preston  
(Frank Cushman), Jerry  
O'Connell (Bob Sugar),  
Jay Mohr (Laurel Boyd).

Jerry Maguire SMI, futbol jokalaria kontratatzen dituen kirol agenzia bateko kiderik onena da. Jerry-ri dena ondo doakio: gizon atsegina eta goapoa da. Bere enpresako kirol-bezeroak eta bere neskalguna den Avery dira momentu honetan bere bizitzako gauza onenak. Halako batean, printzipioen zerrenda bat aurkeztu du bere enpresan eta lanetik bota egin dute. Guzti honengatik, ostera ere lan berri bati ekin behar dio beste bi lagunekin batera.

Komedia erromantikoa dugu begien aurrean, urrezko globoa eman zioten aktore nagusi onenari.

**Z A R A I A Z I N E M A**

Apirilak 25, 26, 27, 28

**JERRY MAGUIRE**

Apirilak 27, domeka

(Umeen sesioa)

**WALLACE ETA GROMIT**

(Euskaraz) Animazioko pelikula

**Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

**Oharra:**

Apirilarekin batera uda osterarte zinea bukatu egingo da.

**Liburutegia  
Liburuaren  
Egunean**

**A**pirilak 23an liburuaren eguna ospatu zen. Egun horretan eta 1616 urtean Miguel de Cervantes eta William Shakespeare hil zirelako aukeratu zen egun hori liburuaren eguna egiteko.

Egun hori ospatzeko Kurtzabarri Eskolak "Literatur bi-deetan" izenarekin aste gutzian zehar ekintza ugari burutu ditu irakurzaletasuna bultzatzeko, tartean haurren bisitak Udal Liburutegira.

Dena den Udal Liburutegian bada zer ospaturik ere, astelehenez eginiko Udal Bilkuran aurrekontuak onartu baitziren, eta bertan Udal Liburutegiko informatizazioarako diru partida bat ematea erabaki baizen. Informatizazioari esker zerbitzu hobea eman nahi zaio erabiltzaileari, informazioa bilatzeko azkarragoa eta errazagoa izango delarik.

Informatizazioaren atzetik hiru urtez ibili ondoren lortu dugu Udalak dirulaguntza ematea honetarako. Hala ere, zerbitzu hau martxan ipini aurretik bi urte inguru pasako dira liburutegiko datu guztiak programatu behar baitira, eta langileen egoera finkatu gabe dagoela kontutan izanik, ez dakit nola aterako den aurrera lan guzti hori.

Ordenadoreak erostearen pausua emango dela dirudi, garbi ez dagoena da nola eramango den aurrera ondorengo urteetan lan guzti hori.

Joseba Lopez de Armentia

**Iber**

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2

Tfnoa: 79 79 24

Aretxabaleta

**BASTER-ALDE  
IATETXEA**

SASOIKO JAKIAK

GIRO ONENEAN

Galartza auzoa

Tfnoa: 79 24 58

ARETXABALETA



**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETAKO

**BASABE  
j a t e t x e a**

Basabe bidea z/g  
Tfnoa: 79 91 84  
Aretxabaleta

**MIKELOS**

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETAKO

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Matikua  
j a t e t x e a**

Bertako mortzilak eta  
txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita  
Azatza auzoa  
ARETXABALETAKO

**BP Amaia-Berri, S. L.**

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor  
Teknologia**

**APIRILA**

**25**  
egukotxa

**ZINEA**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan  
"HENRY MAGUIRE".

**26**  
zapatua

**ZINEA**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan  
"HENRY MAGUIRE".

**27**  
domeka

**HELDUEN DANTZARI  
EGUNA**

Loramendi dantza taldearen eskutik.  
Goizeko 11etan kaleetan zehar dantza  
taldeen ekitaldia. Eguerdiko 12etan  
eta arratsaldeko 5etan plazan.

**MENDI IRTEERA**

**MURRUKIXO M. E.ak Txindoki**  
mendira irteera antolatu du (egun  
osorako). Irteera ordua: 8,30ak  
partenoitik. Izen ematea Arlutz  
tabernan. Prezioa: Bazkideek 1.000  
pezeta. Bazkide ez direnek: 1.200.  
Ikasle eta langabetuek dohain.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-  
Arroiabe-Durana-Gamarra-Gasteiz-  
Elorriaga-Sri.Estibaliz-Gasteiz-  
Urbina-Landa-Aretxabaleta. 86Km.

**27**  
domeka

**ZINEA**

Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan  
eta gaueko 10,15etan "HENRY  
MAGUIRE".

Umeentzat arratsaldeko 5etan  
"WALLACE ETA GROMIT"  
Animaziozko pelikula euskaraz.

**28**  
astelehena

**ZINEA**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan  
"HENRY MAGUIRE".

**29**  
martizena

**JAI BATZORDEA**

**GAIA: San Juan bezpera,  
Andramaixak.**

Arratsaldeko 7etan udaletxean.  
Herritar guztiok jai hauen egitaraua  
gertatzen laguntzeko eta ideiak  
emateko batzar honetara gonbidatuta  
zaudete.

**DIPOSITIBA EMANALDIA**

**GAIA: SAHARAKO  
KANPAMENTUA**

**Alberto Elkorobarrutiak** emango  
du maiatzaren 8an Loramendi  
elkartean arratsaldeko 7etan.



**HAIZEA  
AKEITEGIA**

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57



# MAIATZA

1, 2, 3

## MENDI IRTEERA

**HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN.**

### Lea eta Aperri memoriala.

Aizkorri, Anboto eta Gorbea igoko dira eta lo Gatzagan eta Urkiolan.

Izenemate epea: apirilaren 25a arte.

Prezioa: 3.700 pta.

Tfnoa: 77 12 28 (edo AEDn).

AEDren eskutik.

4

domeka

## OTALA ZELAI KROSSA

Urkuluko urtegian 11etan hasita.

## ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Oñati-Udana-Astiria-Zerain-Segura-Zegama-Zerain-Astiria-Udana-Oñati-Aretxabaleta. 90 km.

# Lehiaketak

## Komiki lehiaketa

Bergarako Jardun elkarteak V. komiki lehiaketa antolatu du. Lan guztiek argitaragabeak, euskaraz idatziak eta originalak izan beharko dute. Lanak taldeka ere aurkez daitezke.

Lanak aurkezteko epea 1997ko ekainaren 6 arte da, Jardun Elkartea, Masterreka, 13 behea, 20570 Bergara.

# Ikastaroak

## Karibeko dantzak

(Salsa, merenge, bachata). Sakontze mailako ikastaroa.

Maitzaren 21etik ekainaren 18ra.

Astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9ak arte. Musokolako saloian Arrasaten. Matrikula: 4.000 pta (2.500 ikasle eta langabetuentzat).

Izen ematea: Arrasateko Gazte bulegoan 77 00 65.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

## Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

## Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

## Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

## Dantzari Eguna

Apirilaren 27an Loramendi dantza taldeak antolaturik Dantzari Eguna izango da Aretxabaletan.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABALETA**

# CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

## ITURGINTZA




Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# Fiesta

Generazio berria



Bere kategoriko erreferentzia  
Seguritatean liderra  
Zure kotxea



**MUGARRI**